



TOKIKO GOBERNU BATZORDEA

JUNTA DE GOBIERNO LOCAL

TOKIA / LUGAR: Gizarte-etxea
DATA / FECHA: 2019/06/05
HASIERA / INICIO: 20:55
AMAIERA / FINAL: 21:00

BERTARATUAK / ASISTENTES:
ALKATEA / ALCALDE
Aitor Aretxaga Telletxea (EAJ-PNV)

ZINEGOTZIAK / CONCEJALES:
Miren Idoia Etxebarria Otazua (EAJ-PNV)
Andoni Elorrieta Arronategi (EH BILDU)
Jon Ander Zulueta Andicoechea (BIT)

IDAZKARI OROKORRA / SECRETARIO GENERAL
V́ctor-Martín Amparan Álvarez

IZAERA / NATURALEZA: Ohikoa / Ordinaria
DEIALDIA / CONVOCATORIA: Lehena / Primera



Busturiko Udaletxean, adierazitako egun eta orduan, Alkate jauna buru zela, Tokiko Gobernu Batzordea bildu zen ohiko saioa lehen deialdian egiteko. Ekitaldiaren fede eman zuen Udalbatzako idazkari Víctor-Martín Amparan Álvarez jaunak. Alkate jaunaren aginduz, ekitaldiari hasiera eman zitzaion, aurretik nahikoa denboraz zinegotziei banatutako gairerrendaren arabera, eta akordio-proposamen hauek egin ziren:

En el Ayuntamiento de Busturia, siendo el día y hora indicados, bajo la Presidencia del Sr. Alcalde y con asistencia de los concejales arriba mencionados, se reunió la Junta de Gobierno Local, al objeto de celebrar sesión ordinaria en primera convocatoria. Dio fe del acto el Secretario de la Corporación, D. Víctor-Martín Amparan Álvarez.

De orden del Sr. Alcalde dio comienzo el acto conforme al orden del día que ha sido distribuido entre los concejales con la suficiente antelación, adoptándose los siguientes acuerdos:

1.- Aurreko saioko akta.-

Tokiko Gobernu Batzordeak aho batez adostu zuen 2019ko maiatzaren 15eko saioko akta onartzea.

1.º.- Acta de la sesión anterior.-

La Junta de Gobierno Local, por unanimidad, acordó aprobar el acta de la sesión de 15 de mayo de 2019.

2.- Kreditu-aldaketarako 2/2019 espedientea.-

Kredituak Aldatzeko Espedientea kontuan hartuta, kreditu-gaikuntzen araubidearen bidez, 2 zenbakia duena eta Udal honen 2019ko aurrekontuan izapidetua, eta Idazkari-Kontu hartzaileak igorritako aldeko txostena kontuan hartuta, Tokiko Gobernu Batzordeak aho batez erabaki zuen:

Lehena.- Kreditu-gaikuntzen araubidearen bidez Kredituak Aldatzeko Espedientea onestea, 23.247,54 €-an eta hurrengo zehaztapenarekin:

2.º.- Expediente de modificación de créditos 2/2019.-

Visto el expediente de modificación de créditos mediante el régimen de habilitaciones de crédito identificado con el nº 2 e instruido dentro del presupuesto de 2019 de este Ayuntamiento y visto el informe favorable emitido por el Secretario-Interventor, la Junta de Gobierno Local, por unanimidad, acordó:

Primero.- Aprobar el expediente de modificación de créditos mediante el régimen de habilitaciones de crédito por importe de 23.247,54 € con el siguiente detalle:

KREDITUEN GAIKUNTZA / HABILITACIÓN DE CREDITOS				
DIRU-SARREREN KONTZEPTUAK / CONCEPTOS DE INGRESOS				
		Aurreikuspena	Burutzapena	Soberakina
		Previsión	Realización	Excedente
41015	Transferencias corrientes Gobierno Vasco Lanbide 2019		0,00 €	17.744,48 €
71005	Transferencias de capital Gobierno Vasco para obras en Colegio Público		0,00 €	5.503,06 €
TOTAL			0,00 €	23.247,54 €
GASTUEN PARTIDAK / PARTIDAS DE GASTOS				
		Aurreikuspena	Gehikuntza	Guztira
		Previsión	Aumento	Total
241	13103	Personal Promoción empleo Lanbide		17.744,48 €
323	62203	Reforma baños Colegio Público		9.203,06 €
TOTAL			23.247,54 €	26.947,54 €

Bigarrena.- Egintza hau irmoa eta betearazlea denez eta geroko izapiderik behar ez denez, Idazkari Kontu-hartzaileak kontabilitatean adierazi behar du kreditu aldaketa onetsi berria, berehala sartuko dena indarrean.

Segundo.- Siendo este acto firme y ejecutivo, sin necesidad de ulteriores trámites, procede que por la Secretaría-Intervención se refleje en la contabilidad la modificación de créditos aprobada con efectos inmediatos.

3.- Hilerriko kaperako teilatuaren konponketa.-

Jasotako aurrekontua ikusita, Tokiko Gobernu Batzordeak erabaki zuen, aho batez, hilerriko kaperako teilatua konpontzeko lanak Albino Barreira Luis enpresari esleitzea, 16.636,64 €-an.

3.º.- Reparación del tejado de la capilla del cementerio.-

Visto el presupuesto recibido, la Junta de Gobierno Local, por unanimidad, acordó adjudicar las obras de reparación del tejado de la capilla del cementerio a la empresa Albino Barreira Luis, por un importe de 16.636,64 €.



4.- Udaletxeko teilatuaren konponketa.-

Jasotako aurrekontua ikusita, Tokiko Gobernu Batzordeak erabaki zuen, aho batez, Udaletxeko teilatua konpontzeko lanak José María Loma enpresari esleitzea, 34.692,77 €-an.

4.º.- Reparación del tejado de Casa Consistorial.-

Visto el presupuesto recibido, la Junta de Gobierno Local, por unanimidad, acordó adjudicar las obras de reparación del tejado de la Casa Consistorial a la empresa José María Loma, por un importe de 34.692,77 €.

5.- José María Ucelay ikastetxe publikoko komun eraberritzea.-

Jasotako aurrekontuak ikusita, Tokiko Gobernu Batzordeak erabaki zuen, aho batez, José María Ucelay ikastetxe publikoko komun eraberritzea Albino Barreira Luis eta Berzal Iturgintza enpresei esleitzea, 1.754,62 €-an eta eta 7.326,51 €-an, igeltsero-lanen eta iturgin-lanen truke.

5.º.- Reforma de los baños del colegio público José María Ucelay.-

Vistos los presupuestos recibidos, la Junta de Gobierno Local, por unanimidad, acordó adjudicar las obras de la reforma de los baños del colegio público a la empresa Albino Barreira Luis, por los trabajos de albañilería, por un importe de 1.754,62 € y Berzal Iturgintza, por los trabajos de fontanería, por un importe de 7.326,51 €.

6.- Axpeko estali gabeko pilotalekuaren konponketa.-

Jasotako aurrekontua ikusita, Tokiko Gobernu Batzordeak erabaki zuen, aho batez, Axpeko estali gabeko pilotalekua konpontzeko lanak Landalan enpresari esleitzea, 49.393,76 €-an.

6.º.- Reparación del frontón descubierto de Axpe.-

Visto el presupuesto recibido, la Junta de Gobierno Local, por unanimidad, acordó adjudicar las obras de reparación del frontón descubierto de Axpe, a la empresa Landalan, por un importe de 49.393,76 €.

7.- Axpeko pilotaleku estaliaren konponketa.-

Jasotako aurrekontua ikusita, Tokiko Gobernu Batzordeak erabaki zuen, aho batez, Axpeko pilotaleku estalia konpontzeko lanak Landalan enpresari esleitzea, 24.568,75 €-an.

7.º.- Reparación del frontón cubierto de Axpe.-

Visto el presupuesto recibido, la Junta de Gobierno Local, por unanimidad, acordó adjudicar las obras de reparación del frontón cubierto de Axpe, a la empresa Landalan, por un importe de 24.568,75 €.

8.- Izoziak saltzeko kioskoaren enkantea.-

Kontuan hartuta San Antonioko aparkalekuan, Izpiluetan, San Kristobalen eta Altamiran izozkiak, gozokiak eta jakiak saltzeko kioskoen emakidarako eskaintzak aurkezteko epean bi eskaintza egin direla (biak San Antonioko aparkalekurako), bata M. B. C.ek, mila berrehun eta berrogeita hamar eurokoa (1.250 €) eta bestea S. S. R.ek, mila berrehun eta hamar eurokoa (1.210 €), eta kontuan hartuta, halaber, biek betetzen dituztela legezko betebeharrak, Tokiko Gobernu Batzordeak erabaki zuen, aho batez, postua M. B. C.i ematea.

8.º.- Subasta de quiosco de venta de helados.-

Visto que, durante el periodo de presentación de ofertas para la concesión de quioscos de venta de helados, golosinas y comidas en el aparcamiento de San Antonio, Izpillueta, San Cristóbal y Altamira, se han formulado dos ofertas (ambas para el quiosco del aparcamiento de San Antonio), una de M. B. C., por un importe de mil doscientos cincuenta euros (1.250 €) y otra de S. S. R., por mil doscientos diez euros (1.210 €) respectivamente, y considerando que cumplen con los requisitos legales, la Junta de Gobierno Local, por unanimidad, acordó adjudicar dicho puesto a M. B. C.

9.- Animatzaile soziokulturala-liburuzaina izateko lan-poltsa.-

Bi urteko epean (2019-2020) Udaleko animatzaile soziokultural-liburuzain lanpostuaren balizko ordezkapenentarako aurkezturiko eskaerak ikusita eta balioetsita, Tokiko Gobernu Batzordeak erabaki zuen, aho batez, hurrenkera hau ezartzea:

9.º.- Bolsa de trabajo de animadora sociocultural-bibliotecaria.-

Vistas las solicitudes presentadas para posibles sustituciones del puesto de animadora sociocultural-bibliotecaria del Ayuntamiento durante un periodo de dos años (2019/20) y una vez valoradas las mismas, la Junta de Gobierno Local, por unanimidad,



- G. A.
- N. Z.
- A. Z.

acordó establecer el siguiente orden:

- G. A.
- N. Z.
- A. Z.

10.- 2019ko Udalekuak.

Tokiko Gobernu Batzordeak 2019ko Udalekuetan izena eman duten adingabeen kopuruaren berri jaso zuen, eta, adinen arabera banatuta, zazpi begirale hautatzeko prozesua hasia erabaki zuen.

10.º.- Udalekus 2019.-

La Junta de Gobierno Local fue informada de los menores inscritos en los Udalekus 2019 y, en función de su distribución por edades, acordó proceder a la selección de siete monitores.

11.- Mundakako Udalaren idazkia.-

Tokiko Gobernu Batzordeak jakin zuen Mundakako Udalak ofizioa igorri duela udal-arkitekto lanpostu sortu nahi duela jakinarazteko; dena den, lan-karga ez denez lanaldi osoko funtzionario-plaza sortzeko adinakoa, plaza hori inguruko beste udalekin batera sortzeko proposamena egin du. Horretarako, Busturiko Udala (eta, hala badagokio, eskualdeko besteren bat) proposatu du Mundakako lanaldia osatzeko.

Tokiko Gobernu Batzordeak Mundakako Udalaren proposamena arrazoitu duten aurrekariak berri ere izan zuen.

Hori guztia ikusita eta hauek kontuan hartuta:

1.- Aurkeztutako proposamenak legezko arazoak ditu (hainbat udalen ordezkariak izango lukeen balizko funtzionarioa izendatzeko berezko nortasun juridikodun erakunde baten falta),

2.- Indarrean dagoen legeriak berak beste sistema batzuk aurreikusten ditu, esaterako, zerbitzu hori ez duten udalei aldundiek ematea hirigintza-arloko laguntza (Hirigintzako diziplinaren erregelamenduaren 4. artikulua),

Tokiko Gobernu Batzordeak erabaki zuen, aho batez, Bizkaiko Foru Aldundiko Herri Administrazioarako eta Erakunde Harremanetarako Sailera jotzea, dagozkion neurriak har ditzan aipatu zerbitzua ez duten eta egun kanpo-zerbitzuen kontratazioaren bidez betetzen duten erakundeei, legezotasuna kolokan duen sistemaren bidez bete ere, eskaintzeko.

11.º.- Escrito del Ayuntamiento de Mundaka.-

La Junta de Gobierno Local fue informada de que el Ayuntamiento de Mundaka ha remitido un oficio en el que manifiesta su deseo de crear una plaza de arquitecto municipal, pero que, dado que el volumen de trabajo no justifica la creación de una plaza de funcionario a jornada completa, plantea sacar la plaza junto con otros ayuntamientos del entorno, para lo que propone al Ayuntamiento de Busturia (y en su caso a algún otro de la comarca) complementar la jornada de Mundaka.

La Junta de Gobierno Local también fue informada de los antecedentes que han justificado la propuesta del Ayuntamiento de Mundaka.

A la vista de ello, y considerando:

- 1.- que la propuesta realizada presenta problemas de índole legal (como la falta de una entidad con personalidad jurídica propia que pueda designar al hipotético funcionario en representación de varios ayuntamientos),
- 2.- que existen otros sistemas previstos por la propia legislación vigente, como la prestación por parte de las diputaciones de la asistencia urbanística a los ayuntamientos que no dispongan de ese servicio (artículo 4.º del Reglamento de Disciplina Urbanística)

La Junta de Gobierno Local, por unanimidad, acordó dirigirse al Departamento de Administración Pública y Relaciones Institucionales de la Diputación Foral de Bizkaia a fin de que adopte las medidas oportunas para prestar este servicio a aquellos ayuntamientos que carecen de él y que actualmente recurren a la contratación de servicios externos mediante un sistema cuya legalidad está en entredicho.

12.- Altamirako harrobiko betetze-lanari buruzko Eusko Jaurlaritzaren idazkia.-

Jarraian, Eusko Jaurlaritzako Ingurumen, Lurralde Plangintza eta Etxebizitza Sailak igorritako idazkia irakurri zen, non Leandro Gómez S.L. enpresari Altamirako harrobi zaharra betetzeko emandako baimenarekin loturiko dokumentazioa helarazteko eskaera dagoen.

12.º.- Escrito del Gobierno Vasco sobre relleno de la cantera de Altamira.-

Seguidamente se dio lectura al escrito remitido por el Departamento de Medio Ambiente, Planificación Territorial y Vivienda del Gobierno Vasco, en el que informa de que ha enviado un requerimiento a Leandro Gómez S.L. para que aporte determinada



Hori ikusita, Tokiko Gobernu Batzordeak erabaki zuen, aho batez, aipatu Sailari adieraztea eskaera hori Eusko Jaurlaritzak emaniko baimenari dagokiola, baina Udalak ere eman zuela bere jarduera-baimena (atal ugaritan, Eusko Jaurlaritzak bere sailetan ezarritako baldintzak jaso zituen) eta Udala aspaldi eskatzen ari dena Ingurumen, Lurralde Plangintza eta Etxebizitza Sailaren elkarlana dela, ezarritako baldintzak betetzen ari diren egiaztatzeko.

13.- Zain dezagun Urdaibai eta hainbat bizilagunen idazkia, bideak irekitzeari buruzkoa.-

Udal-bideak irekitzeari eta horri dagokion onarturiko ordenantzari buruz Zain dezagun Urdaibai elkarteak eta hainbat bizilagunek aurkezturiko idazkiaren berri izan zuen Batzordeak. Kontu horri dagokionez, Tokiko Gobernu Batzordeak erabaki zuen, aho batez, eskaera egitea 2. industrialdeko 161. lursailaren jabeari Pagosarreta baserrian duen itxitura, Zabalarako bidea ixten duena, ken dezan.

14.- A. A. ren idazkia, Abinagako salmenta-postuari buruzkoa.-

Tokiko Gobernu Batzordeak erabaki zuen, aho batez, Udal honen 2019ko maiatzaren 15ean onarturiko jarduera (izozkiak saltzeko salmenta-postua San Antonio hondartzatik gertuko lursail pribatu batean) aldatzeko A. A. Q.k egindako eskaera onartzea, baimenak ardo-, freskagarri- eta gozoki-salmenta ere barne izan ditzan, hala nola hiru mahai jartzeko aukera.

15.- Bocineros-Deiadar Xtreme proba.-

Tokiko Gobernu Batzordeak erabaki zuen, aho batez, Trail 52 mendi-taldeari irailaren 13tik 15era izango den Bocineros-Deiadar Xtreme proba egiteko baimena ematea.

16.- J. A. A. ren ibilgailuaren zergaren salbuespena.-

Kontuan hartuta J. A. A. A.k aurkezturiko eskaera, 2020. urtean eta hurrengoetan bere ibilgailua, BI-3880-BN matrikula duena, Trakzio Mekanikoko Ibilgailuen Gaineko Zergatik salbuetsita egon dadin, fabrikatu zenetik gutxienez 25 urte pa-

documentación en relación a la autorización concedida para el relleno de la antigua cantera de Altamira.

A la vista de ello, la Junta de Gobierno Local, por unanimidad, acordó dirigirse al citado Departamento para manifestarle que el requerimiento efectuado afecta a la autorización concedida por el Gobierno Vasco, pero que el Ayuntamiento también concedió su licencia de actividades (recogiendo en muchos de sus apartados las condiciones impuestas por el Gobierno Vasco en sus distintos departamentos) y que lo que el Ayuntamiento lleva demandando desde hace tiempo es colaboración técnica por parte del Departamento de Medio Ambiente, Planificación Territorial y Vivienda para comprobar el cumplimiento de las condiciones impuestas.

13.º.- Escrito de Zain dezagun Urdaibai y varios vecinos sobre la apertura de caminos.-

La Junta de Gobierno Local tomó conocimiento del escrito presentado por la asociación Zain dezagun Urdaibai y varios vecinos en relación a la apertura de caminos municipales y la ordenanza aprobada al respecto.

En relación a este asunto, la Junta de Gobierno Local, por unanimidad, acordó requerir al propietario de la parcela 161 del polígono 2 para que proceda a la eliminación del cierre que tiene colocado a la altura del caserío Pagosarreta y que interrumpe el camino que comunica con Zabala.

14.º.- Escrito de A. A. sobre puesto de venta en Abinaga.-

La Junta de Gobierno Local, por unanimidad, acordó acceder a la petición de A. A. Q. para modificar la actividad autorizada por este Ayuntamiento el 15 de mayo de 2019 (puesto de venta de helados en un terreno privado cercano a la playa de San Antonio) de forma que el permiso incluya también la venta de vinos, refrescos y golosinas, así como la colocación de tres mesas.

15.º.- Prueba Bocineros-Deiadar Xtreme.-

La Junta de Gobierno Local, por unanimidad, acordó conceder autorización al club de montaña Trail 52 para la realización de la prueba Bocineros-Deiadar Xtreme que se disputará del 13 al 15 de septiembre.

16.- Exención del impuesto del vehículo de J. A. A. A.-

Dada cuenta del escrito presentado por J. A. A. A., por el que solicita la exención, para el año 2020 y sucesivos, del Impuesto sobre Vehículos de Tracción Mecánica, del turismo de su propiedad, matrícula BI-3880-BN, por ser un vehículo con una antigüedad mínima de 25 años desde la fecha de su fabricación, en apli-



satu direlako, eta aipatu Zergaren udal-ordenantza arautzailearen laugarren artikularen arabera, Tokiko Gobernu Batzordeak aho batez erabaki zuen eskaera onartzea.

cación de lo dispuesto en el artículo cuarto de la Ordenanza Fiscal municipal reguladora del Impuesto, la Junta de Gobierno Local, por unanimidad, acordó aceptar la solicitud presentada.

17.- Hirigintza-baimenak.-

1.- Kontuan hartuta Busturibai S.L. enpresaren eskaera, Kurtziobiden etxebizitzak, lokalak eta garajeak eraikitzeko (47/19 espedientea), eta igorritako txostenak (eskatzaileari helarazi beharko zaizkio) ikusita, Tokiko Gobernu Batzordeak erabaki zuen, aho batez, ez onartzea, lursail hori Eremu Garbien Sistema Orokor gisa kalifikatua dagoelako.

2.- Kontuan hartuta A. V. Lren eskaera, Busturiko 9. industrialdeko 166. katastro-lursaileko bideko itxitura kentzeko eta beldar-sastrakak garbitzeko (37/19 espedientea), eta aintzat hartuta horri ireki nahi den bidearen jabetzari buruzko prozedura zibilean Gernika-Lumoko Lehen Auzialdiko eta Instrukzioko 3. Epaitegiak igorritako dokumentazio judiziala erantsi zaiola, Tokiko Gobernu Batzordeak erabaki zuen, aho batez, aipatu epaitegiari eskaera egitea argi dezan V. andrea legitimatuta ote dagoen berea ez den lursailean baimenean eskatu bezala aritzeko.

17.º.- Licencias urbanísticas.-

1.º.- Vista la solicitud presentada por la mercantil Busturibai S.L. para la construcción de viviendas, locales y garajes en Kurtziobide (Expte. 47/19), y vistos los informes emitidos (de los cuales se deberá dar traslado a la solicitante), la Junta de Gobierno Local, por unanimidad, acordó denegarla dado que la promoción pretende ejecutarse sobre una parcela calificada como Sistema General de Espacios Libres.

2.º.- Vista la solicitud presentada por A. V. L. para la retirada de cierre y desbroce de camino en la parcela catastral 166 del polígono 9 de Busturia (Expte. 37/19) a la que se aporta determinada documentación judicial emitida por el Juzgado de Primera Instancia e Instrucción n.º 3 de Gernika-Lumo en un procedimiento civil sobre posesión del camino que se pretende abrir, la Junta de Gobierno Local, por unanimidad, acordó solicitar aclaración al citado juzgado sobre si la Sra. V. está legitimada para actuar sobre la finca ajena en el sentido expuesto en la solicitud de licencia.

18.- Lanbideren dirulaguntza.-

Tokiko Gobernu Batzordeak Lanbideren Zuzendari Nagusiaren 2019ko maiatzaren 23ko Ebazpenaren berri izan zuen. Horren arabera, 2019ko ekitaldian bereziki egoera ahuleko eremu eta udalerrietara bideraturiko lan-sustapenerako tokian tokiko ekintzetarako laguntzen deialdia argitaratuko da. Bertan, Busturiko Udalarari 12.500 €-ko kopurua dagokio.

Tokiko Gobernu Batzordeak erabaki zuen, aho batez, bertan turismo-teknikari baten kontratazioa, 9 hilabeterako, txertatzea, lanaldi arruntaren % 40an.

18.º.- Subvención de Lanbide.-

La Junta de Gobierno Local fue informada de la Resolución de 23 de mayo de 2019, del Director General de Lanbide-Servicio Vasco de Empleo, por la que se procede a la publicación de la convocatoria de ayudas para acciones locales de promoción de empleo dirigidas especialmente a zonas y municipios desfavorecidos para el ejercicio 2019. En ella le corresponde al Ayuntamiento de Busturia la cantidad de 12.500 €.

La Junta de Gobierno Local, por unanimidad, acordó solicitar la inclusión en el mismo de la contratación de un técnico de turismo durante nueve meses, a un porcentaje del 40 % de la jornada ordinaria.

19.- San Antonioko hondartzari buruzko Ordenantza.-

San Antonioko hondartzari buruzko Ordenantzaren 7. artikulua (hondartzan animaliak izan daitezkeen ala ez) dela-eta zailtasunak agertu direnez, zehazki haren aplikazioaren gainekoak, Tokiko Gobernu Batzordeak erabaki zuen, aho batez, hura garatzeko bandoa idaztea, honela:

"San Antonioko hondartzari buruzko Ordenantzaren 7. artikulua hau dio:

"Animaliak onarturik daude urriaren batetik Aste Santua hasi arte. Gainerakoan, Aste Santutik urriaren 1era arte, 21:00etatik 6:00etara baino ezingo dira egon hondartzan. Hori guztia Ezinduei Laguntzeko Txakurrei buruzko ekainaren 29ko

19.º.- Ordenanza de la playa de San Antonio.-

Habiendo surgido dudas respecto de la aplicación del artículo 7 de la Ordenanza de la Playa de San Antonio, sobre la presencia de animales en la misma, la Junta de Gobierno Local, por unanimidad, acordó dictar un bando en desarrollo de la misma, con el siguiente contenido:

"El art. 7º de la ordenanza de la playa de San Antonio dice lo siguiente:

"Se permite la presencia de animales desde el día 1 de octubre hasta el inicio de la Semana Santa. Durante el resto del año, es decir, desde la Semana Santa hasta el 1 de octubre, únicamente se permite la presencia desde las 21 horas hasta las 6 horas.



10/2007 Legea bazter utzi gabe. Debekatua dago ez ein animalia hondartzan aske uztea. Animaliak uhal eta lepoko loturik ibili beharko dira, eta jabeek haien gorozkiak bildu beharko dituzte”.

Ondorioz, eta aintzat hartuta hondartza ez dela bakarrik hondarra dagoen lekua, alegia, ingurunea ere badela (itsaso eta lehorraren arteko jabari publikoa), debekatuta dago txakurrak leku hauetan izatea:

- 1.- Betiko hondartza.
- 2.- Hondartza berria (ezkerraldea).
- 3.- Pinudia.
- 4.- Taberna eta txosnak.

Eta eremu horietan guztietan, hondartzainek esku hartu ahal eta behar dute.

Ez dago txakurrentzako eremu zehatzik.

Hondartzara txakurrak edo bestelako maskotak eraman nahi dituenak bi aukera ditu:

- 1.- Hondartza ez den hareatzaren batera jo (inguru honetan asko dago).
- 2.- Hondartzara baimenduriko orduetan joan (gaueko bederatzietatik goizeko seietara)."

Eta, besterik gabe, Alkate jaunak amaitutzat eman zuen saioa, eta, adostutakoa oinarri, akta hau idatzi da, Alkate jaunak eta nik, Idazkariak, egiaztatzen dudanak, sinatu duguna.

Alkatea / El Alcalde,

Izp. / Fdo.: Aitor Aretxaga Telletxea

Todo ello sin perjuicio de lo establecido en la Ley 10/2007, de 29 de junio, sobre Perros de Asistencia para la Atención a Personas con Discapacidad. Se prohíbe dejar suelto cualquier animal en la playa. Los animales irán sujetos mediante correas y collares, y los dueños estarán obligados a recoger los excrementos de los mismos”.

En consecuencia y considerando que playa no es solo el arenal sino también el entorno (concesión de dominio público marítimo terrestre), está prohibida la presencia de perros en:

- 1.- La playa tradicional
- 2.- La nueva playa (margen izquierda)
- 3.- El pinar
- 4.- El bar y los txiringuitos

Y en todas esas zonas pueden y deben intervenir los hondartzainak.

No hay una zona concreta habilitada para la estancia de perros. Quien quiera llevar perros u otros animales de compañía a la arena tiene dos alternativas:

- 1.- Ir a un arenal que no sea playa (en esta zona hay muchos).
- 2.- Ir a la playa a las horas autorizadas (de nueve de la noche a seis de la mañana)."

Y no habiendo más asuntos que tratar, el Sr. Alcalde dio por terminado el acto y de lo acordado se extendió la presente acta que firman, el Sr. Alcalde y el Secretario que certifico.

Idazkaria / El Secretario,

Izp. / Fdo.: Víctor-Martín Amparan Álvarez